**BAZTERTZEKO ARRISKUAN DAUDEN DEBABARRENEKO ESKUALDEKO PERTSONENTZAKO TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZAK ERREGULATZEKO ARAUDI PROPOSAMENA**

ZIOEN AZALPENA

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak 5.1 artikuluan ezartzen duenez, «Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzukizun publikokoa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egitea du xede, eta sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsonei eta harremanei buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez».

Xede horrekin, Legeak 22. artikuluan definitzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa, euskal administrazio publiko eskudunek bermatu behar dituzten prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak identifikatzen dituen tresna. Gainera, 42. artikuluan ezartzen duenez, udalen eskumenekoa izango da katalogo horren 1. zenbakian jasotako lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea, telelaguntza-zerbitzua izan ezik, hori Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa baita zuzen-zuzenean.

"Tutoretzapeko etxebizitzen" zerbitzua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan jasotako lehen mailako arretako ostatu-zerbitzuetako bat da (Legearen 22. artikuluko 1.9.2 zerbitzua) eta, hortaz, udalen eskumenekoa da haren eskaintza.

**PROPUESTA DE REGLAMENTO REGULADOR DE LA VIVIENDA TUTELADA PARA PERSONAS EN RIESGO DE EXCLUSION DE LA COMARCA DEBABARRENA**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La ley 12/2008 de Servicios Sociales establece en el artículo 5.1 que la finalidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales es «constituir una red pública articulada de atención, de responsabilidad pública, cuya finalidad es favorecer la integración social, la autonomía y el bienestar de todas las personas, familias y grupos, desarrollando una función promotora, preventiva, protectora y asistencial, a través de prestaciones y servicios de naturaleza fundamentalmente personal y relacional.

Con esta finalidad, en su artículo 22, la Ley define el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, instrumento por el que se identifican las prestaciones económicas y los servicios cuya provisión deberán garantizar las administraciones públicas vascas competentes. Establece, además, en su artículo 42, que será competencia de los ayuntamientos la provisión de los servicios sociales de atención primaria recogidos en el punto 1 de dicho Catálogo, salvo el servicio de tele asistencia que recae en la competencia directa del Gobierno Vasco.

El servicio de "Vivienda Tutelada", es uno de los servicios de alojamiento de atención primaria incluidos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales (servicio 1.9.2 del artículo 22 de la Ley) y su provisión recae, por lo tanto, en la competencia de los ayuntamientos.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak Legearen Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren ondorio diren euskal administrazio publikoentzako betebeharrak zehazten ditu, I. eranskinean ezartzen baititu zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitzaren ezaugarri nagusiak, zerbitzu edo prestazioen hartzaileak eta, zerbitzuen kasuan, doakoak diren edo baterako ordainketari lotutakoak diren.

El Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales viene a concretar las obligaciones derivadas del Catálogo de Prestaciones y Servicios de la Ley para las administraciones públicas vascas, al establecer, en su Anexo I, las principales características de cada servicio o prestación económica, las poblaciones destinatarias de los servicios o prestaciones y, en el caso de los servicios, su carácter gratuito o sujeto a copago.

“Tutoretzapeko etxebizitzen” zerbitzua 185/2015 Dekretuaren I. eranskineko 1.9.2 fitxan arautzen da. Bertan definitzen denez, izaera kolektiboko eta egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu-zerbitzua da, intentsitate txikikoa, baztertzeko arrisku handiko egoeran dauden pertsonei zuzendua.

El servicio de “Vivienda tutelada” se regula la ficha 1.9.2 del Anexo I al Decreto 185/2015, definiéndose como un servicio de alojamiento, de carácter colectivo, de corta o media estancia y baja intensidad dirigido a personas en situación de alto riesgo de exclusión.

Testuinguru horretan kokatzen da, hain zuzen ere, baztertzeko arriskuan dauden pertsonekin lan egiteko baliabide berri hori, helburu funtsean prebentibo, sustatzaile eta trebakuntzakoarekin, integrazio pertsonala, familiari dagokiona, lanekoa, ekonomikoa eta soziala lortzeko.

Es precisamente en este contexto en el que se enmarca este nuevo recurso para trabajar con personas en riesgo de exclusión, con un objetivo fundamentalmente preventivo, promotor y de capacitación, a fin de conseguir la integración personal, familiar, laboral, económica, social.

DEFINIZIOA ETA HELBURUA

DEFINICIÓN Y OBJETIVO

Tutoretzapeko etxebizitzak izaera kolektiboko eta egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu-zerbitzua ematen die baztertzeko arriskuan dauden pertsonei.

La vivienda tutelada ofrece alojamiento, de carácter colectivo, de corta media estancia a personas en riesgo de exclusión.

Ostatu-prestazioarekin batera, zerbitzuak gizarte- eta hezkuntza-sostengua eskaintzen die pertsonei, intentsitate txikikoa, komunitate-ingurunean bizimodu autonomoa egiteko eta gizarteratzea ahalbidetzeko gaitasun pertsonalak mantentzera edo garatzera zuzendua.

Junto con la prestación de alojamiento, el servicio ofrece a las personas usuarias apoyo de carácter socioeducativo, de baja intensidad, dirigido a mantener o desarrollar capacidades personales para la vida autónoma en el entorno comunitario y para favorecer su inclusión social.

Baliabide horrekin helburu hauek erdietsi nahi dira: erabiltzaileek trantsizio-prozesuak egitea egoera normalizatuari begira, eta bizimodu autonomoa garatzeko konpetentzia pertsonalak, autoestimua, konfiantza pertsonala eta trebetasunak mantentzeko, berreskuratzeko eta/edo garatzeko prozesuak gauzatzea. Horretarako, Arreta Pertsonalizatuko Planean (APP) definitzen diren ekintzak gauzatzeko konpromisoa eskatuko zaie erabiltzaileei.

Ostatu-zerbitzua denez, zerbitzu hori egiteak erabiltzaileari etxebizitza bat aldi baterako lagatzea dakar. Dena den, lagapen hori zerbitzu publiko baten prestazio gisa egiten da eta, hortaz, administrazio publikoen zerbitzu-prestazioak erregulatzen dituen araudia bete behar du, hots, tutoretzapeko etxebizitzaren erabiltzailearen eta Soraluzeko Udalaren edo zerbitzua kudeatzen duen erakundearen arteko harremana ez da errentamendu-figura juridikoa izango. Etxebizitza inoiz ez da denbora mugagaberako lagako.

Los objetivos que se persiguen con este recurso son, que las personas usuarias realicen procesos de transición hacia una situación normalizada, y que mantengan, recuperen y/o desarrollen las competencias personales, la autoestima, la confianza personal y las habilidades para desarrollar una vida autónoma. A tales efectos, se requiere a las personas usuarias el compromiso de realizar las acciones que se definan en su Plan de Atención Personalizado (PAP)

En tanto servicio de alojamiento, la prestación del mismo supone la cesión, a la persona usuaria, de una vivienda con carácter temporal. No obstante, dicha cesión se realiza en calidad de prestación de un servicio público y debe atender, por lo tanto, a la normativa que regule la prestación de servicios de las Administraciones Públicas, es decir, la relación de la persona usuaria de la vivienda tutelada con el Ayuntamiento de Soraluze o entidad que gestione el servicio no constituirá figura jurídica de arrendamiento. En ningún caso la cesión del piso se realizará por tiempo indefinido

XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua. Hartzaileak.**

Eskabidea egiteko unean Debabarreneko eskualdea osatzen duten udalerrietakoren batean bizi diren eta baztertzeko arrisku handiko egoeran dauden pertsonei bideratuko zaie zerbitzua. Halakotzat hartuko dira, zerbitzuaren ondorioetarako, erroldatuta dauden udalerriko gizarte-zerbitzuen erreferentziako profesionalak egindako balorazioaren arabera:

DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1. Personas destinatarias.**

El servicio estará destinado a aquellas personas, residentes en el momento de realizar la solicitud en alguno de los municipios que conforman la Comarca de Debabarrena, y que se encuentren en situación de alto riesgo de exclusión, entendiendo como tales, a los efectos de este servicio, aquellas que, de acuerdo con la valoración de la persona profesional de referencia de los servicios sociales del municipio en el que se encuentren empadronadas:

- Gizarteratzeko prozesu bat egin ahal izateko ostatu-alternatiba eta bizigarritasun-baldintza egokietakoa ez dutenez, etxebizitza gainbegiratuta duen egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu-alternatiba behar dutenak.

. - Requieran una alternativa de alojamiento de corta o media estancia, con supervisión en la vivienda, por carecer de una alternativa de alojamiento adecuada y en condiciones de habitabilidad para poder realizar un proceso de inserción.

- Baliabide ekonomiko pertsonalik ez dutenak.

.- No dispongan de recursos económicos personales.

- Familiaren sostengu urriak dituztenak edo sostengu soziofamiliarrik ez dutenak.

.- Tengan apoyos familiares deficitarios o no dispongan de apoyo socio-familiar.

Bizikidetza-unitatea mantentzearren, zerbitzu hori eskuratzeko aukera izango dute hauek ere:

A fin de mantener la unidad de convivencia, también podrán acceder a este servicio:

- Eskatzailearekin bizi ohi den ezkontideak edo izatezko bikotekideak, eskatzailea tratu txarren biktima den emakume bat denean izan ezik.

.- Quien sea cónyuge o pareja de hecho con relación de convivencia habitual de la persona solicitante, salvo cuando está última sea una mujer víctima de maltrato.

- Eskatzailearen ardurapean dauden adingabeek.

.- Las personas menores de edad que se encuentren a su cargo.

- Eskatzailearen tutoretzapean dauden helduek edo, tutoretzapean egon gabe ere, arriskuan edo mendekotasun-egoeran daudenek eta eskatzailearekin bizi ohi direnek.

.- Las personas adultas que estén bajo su tutela o que, sin estarlo, se encuentren en riesgo o situación de dependencia y convivan habitualmente con la persona solicitante.

Azken hiru kasuetan, baliabidea komeni den eta/edo etxebizitzan bizi diren pertsonekin eskabide berria egitea egokia den baloratuko da.

En los tres últimos supuestos, se valorará la conveniencia del recurso y/o la idoneidad de la nueva solicitud con las personas residentes en la vivienda.

Etxebizitza aldi berean erabili ahal izango da pertsona eta/edo bizikidetza-unitate baten baino gehiagoren arazoei konponbidea emateko, baldin eta haren dimentsio eta ekipamenduek horretarako aukera ematen badute. Onuradunek ezin izango dute inoiz argudiatu etxebizitzan duten antzinatasunaren ondorioz hura esklusibotasunez erabiltzeko inongo eskubiderik dutenik.

**2. artikulua. Eskuratzeko baldintzak.**

- Eskabidea egiteko unean 18 urte edo gehiago izatea.

- Eskabidea egiteko unean Debabarreneko eskualdeko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta benetako bizilekua frogatuta izatea.

- Eskabide-dataren aurre-aurreko sei hilabeteetan Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon izana.

Kasu hauen barruan egotea:

- Egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu-alternatiba bat behar izatea gizarteratzeko ibilbide bat egiteko.

- Bere egoeraz jabetzea eta aldatzeko motibazioa izatea.

- Gizarteratzeko eta laneratzeko edo arlo okupazionaleko ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea eta zerbitzua erabiltzen duen bitartean ibilbidea egiten jarraitzea.

- Intentsitate txikiko sostengua behar izatea, gizarte- eta hezkuntza-arlokoa, komunitate-ingurunean bizimodu autonomoa izateko eta gizarteratzeko gaitasun pertsonalak mantentzeko edo garatzeko.

La vivienda podrá ser utilizada simultáneamente para dar solución a problemas de personas y/o unidades convivenciales distintas, siempre que las dimensiones y equipamientos de la misma lo permitan. En ningún caso podrá esgrimirse por parte de las personas beneficiarias ningún tipo de derecho sobre la utilización exclusiva de la vivienda en función de su antigüedad en la misma.

**Artículo 2. Requisitos de acceso.**

.- Tener, en el momento de realizar la solicitud, 18 años o más.

.- Estar empadronadas, y tener residencia efectiva probada, en el momento de realizar la solicitud, en cualquiera de los municipios de la Comarca Debabarrena.

.- Haber estado empadronadas durante los seis meses inmediatamente anteriores a la fecha de solicitud en cualquier municipio de la CAPV.

Estar dentro de los siguientes supuestos:

.- Requerir una alternativa de alojamiento de corta o media estancia para realizar un itinerario de inclusión social.

.- Tener conciencia de su situación y motivación para cambiarla.

.- Comprometerse a realizar un itinerario de inclusión social, socio-laboral u ocupacional, y mantenerse realizándolo mientras se utiliza el servicio.

.- Requerir apoyo de baja intensidad, de carácter socio-educativo, para mantener o desarrollar las capacidades personales para la vida autónoma en el entorno comunitario y para la inclusión social

- Jokabide-nahasmendurik ez izatea eta zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetza normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.

- Gaixotasun mental eta/edo infekto-kutsakorren bat izanez gero, tratamenduari ez uko egitea.

- Erreferentziako udaleko gizarte-zerbitzuek baloratutako salbuespenezko eta larritasun handiko beste egoera edo kasu batzuk.

Baztertzeko arrisku-egoera horiek erreferentziako udalerriko gizarte-zerbitzuek baloratuko dituzte, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gizarte-bazterketa baloratzeko tresna kontuan hartuta.

**3. artikulua. Eskuratzeko prozedura.**

**3.1.- Prozedura arrunta.**

HASIERAKO ESKABIDEA

Eskuratzeko hasierako eskabidea erreferentziako udalerriko gizarte-zerbitzuetan jasoko da. Zerbitzuok egoeraren urgentziak eskatzen duen presarekin tramitatu beharko dute. Eskabidea, horretarako formalizatutako instantzian egina, eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak sinatu beharko du.

Prozesuaren edozein unetan, interesdunak eskabidean atzera egin ahal izango du, idatziz betiere. Horrelakoetan espedientea artxibatu egingo da.

TRAMITAZIOA ETA BALORAZIOA

.- No padecer trastornos de conducta ni presentar comportamientos que puedan perturbar gravemente el funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo o que supongan riesgo para la propia persona, para otras personas usuarias o para las y los profesionales

.- No rechazar el tratamiento que corresponda, en caso de padecer una enfermedad mental y/o infecto-contagioso

.- Otras situaciones o supuestos excepcionales y de gravedad elevada valorados por los servicios sociales municipales de referencia.

Estas situaciones de riesgo de exclusión serán valoradas por de los Servicios Sociales del municipio de referencia teniendo en cuenta el instrumento de valoración de la exclusión social de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Artículo 3. Procedimiento de acceso.**

**3.1.- Procedimiento ordinario.**

SOLICITUD INICIAL

La solicitud inicial de acceso se recogerá en los Servicios Sociales del Municipio de referencia, quienes deberán tramitarla con la inmediatez requerida por la urgencia de la situación. La solicitud, realizada en instancia formalizada al efecto, deberá estar firmada por la persona solicitante o su representante legal.

En cualquier momento del proceso, la persona interesada podrá desistir de su solicitud, en cuyo caso deberá hacerlo por escrito. Este hecho conllevará el archivo del expediente.

TRAMITACIÓN Y VALORACIÓN

Txostenaren tramitazioa eta balorazioa erreferentziako udalerriko gizarte-zerbitzuetako teknikariek egingo dute. Teknikariek nahitaezko txostena egingo dute alderdi hauek zehazteko:

- Hartu beharreko pertsonaren edo pertsonen identifikazio-datuak.
- Bizikidetza-unitateko gainerako kideen identifikazio-datuak.
- Ostatu-eskabidea arrazoitzen duten inguruabarrak, araudi honen 2. artikuluan ezarriak.
- Hartutako pertsonaren/pertsonen egoera ekonomikoa.
- Ostatua ematearen komenigarritasunari buruzko balorazioa, eta, aldekoa bada, egonaldiaren proposamena.
- Egonaldi horretan egin beharreko esku-hartze profesionala.
- Hartutako bizikidetza-unitateak hartzen dituen konpromisoak.

Eskabideak erreferentziako udalerriko gizarte-zerbitzuek baloratuko dituzte, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gizarte-bazterketa baloratzeko tresna erabilita.

Txosten hori eta bertan adierazten diren inguruabarrak egiaztatzeko behar den dokumentazio guztia espedientearen parte izango dira.

Eskabidea aztertu eta baloratu ondoren, Eskualdeko Balorazio Batzordearen proposamena organo eskudunari helaraziko zaio eta horrek emango du eskabidea baiesteko edo ezesteko ebazpena.

EBAZPENA

Ebazpena gehienez ere 20 eguneko epean eman beharko da, eskabidea udal-erregistroan sartzen den egunetik aurrera.

La tramitación y valoración de la solicitud será realizada por los/las técnicas de los Servicios Sociales del municipio de referencia que elaborarán un informe preceptivo que determinará:

- Datos de identificación de la persona o personas a acoger.
- Datos de identificación del resto de la unidad de convivencia
- Circunstancias que motivan la solicitud de alojamiento establecidas en el artículo 2 de este reglamento.
- Situación económica de la/s personas acogidas.
- Valoración sobre la conveniencia de conceder el alojamiento y, en caso de que sea favorable, propuesta del tiempo de estancia.
-Intervención profesional a realizar en dicho periodo.
-Compromisos que adquiere la unidad de convivencia acogida.

Las solicitudes serán valoradas por los Servicios Sociales del municipio de referencia utilizando el instrumento de valoración de la exclusión social de Diputación.

Dicho informe y toda la documentación necesaria para acreditar las circunstancias que en él se señalen, formarán parte del expediente.

Una vez estudiada y valorada la solicitud, la propuesta de la Comisión de Valoración Comarcal será elevada al órgano competente, que emitirá resolución estimando o desestimando la solicitud.

RESOLUCIÓN

La resolución habrá de producirse en el plazo máximo de 20 días desde la entrada de la solicitud en el Registro municipal.

Aurreko atalean aurreikusitako epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, ebazteko betebeharra ezertan galarazi gabe, eskabidea ezetsitzat jo ahal izango da, interesdunak aukera izan dezan aukerako berraztertzeko errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko.

Transcurrido el plazo previsto en el apartado anterior sin que se haya adoptado resolución expresa y sin perjuicio de la obligación de resolver, se podrá entender desestimada la solicitud a efectos de permitir a la persona interesada la interposición del recurso potestativo de reposición o contencioso-administrativo

Dena den, ezinbestekoa izango da sartu aurretik pertsonak etxebizitza lagatzeko kontratua eta esku hartzeko plan bat izenpetzea. Eskatzaileak dokumentu hori izenpetzen ez badu zerbitzuari uko egiten diola ulertuko da.

En todo caso, será imprescindible la suscripción de un contrato de cesión de vivienda, así como de un plan de intervención por la persona antes del ingreso. En el supuesto de que el/la solicitante no suscribiera el mencionado documento se entenderá que renuncia al servicio.

**3.2.- Urgentziazko prozedura.**

**3.2.- Procedimiento de urgencia.**

Premia larri eta urgenteko kasuei arreta emateko, Soraluzeko Udaleko arduradun teknikoak edo ALKATEAK behin-behinean baimendu ahal izango du prozedura, dagokion dokumentua izenpetu ondoren, nahiz eta eskabidea behar bezala tramitatuta ez egon.

Para atender casos de extrema y urgente necesidad, éste podrá ser autorizado de forma provisional por la persona responsable técnica y el o la ALCALDE del Ayuntamiento de Soraluze, una vez suscrito el documento correspondiente, aunque la solicitud no esté debidamente tramitada.

Ondoren, berehala emango zaio hasiera arestian ezarritako prozedura arruntari, behin betiko ebazteko. Behin betiko ebazpena zerbitzuan sartu ondorengo 20 egun naturaletan eman beharko da.

Inmediatamente después se dará inicio al procedimiento ordinario establecido anteriormente para su resolución definitiva, la cual deberá dictarse dentro de los 20 días naturales siguientes a la entrada en el servicio.

Urgentziazko prozeduraren bidez sartu ondoren, onuradunak prozeduraren hasieran edo espedientearen tramitean laguntzeari uko egiten badio, edo, tramitean zehar ebazpenak negatiboa izan behar duela egiaztatzen bada, zerbitzua gehienez ere 10 egun naturaletan utzi behar duela jakinaraziko zaio, jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera. Hala egiten ez badu, erabiltzaileak nahitaez kaleratzeari ekingo zaio 8. artikuluan aurreikusitako eran.

En caso de que, tras el ingreso por procedimiento de urgencia, la persona beneficiaria se negara a colaborar en el inicio o trámite del expediente o que, durante éste, se comprobara que la resolución debe ser negativa, se le comunicará la obligación de abandonar el servicio en un plazo no superior a 10 días naturales a contar desde la recepción de la notificación. En caso de que no se hiciera así, se procederá al desalojo forzoso de las personas usuarias en la forma prevista en el artículo 8.

**4. artikulua. Iraupena.**

Etxebizitzan egingo den egonaldia inguruabar pertsonalen, beste baliabide egokiago batzuk bilatzeko aukeren eta alderdien artean adostutako Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) betetzearen mende egongo da.

Oro har, egonaldiaren iraupena 7 hilabete artekoa izan daiteke, kontratua sinatzen den egunetik aurrera. Kasuaren erreferentziako profesionalak irizten badio gehienekotzat jo den pertsonaren egonaldia beste 3 hilabetez luzatu behar dela eta arreta eman zaion pertsona ados badago, Eskualdeko Balorazio Batzordeari berariazko eskabidea igorri beharko diote egonaldia amaitu baino lehen, baita eskaera hori justifikatuko duen gizarte-txostena bidali ere.

Txosten horretan jasoko da egonaldian izan den bilakaera eta, hala badagokio, egonaldiak jarraitzeko justifikazioa.

Eskualdeko Balorazio Batzordeak berariaz baimendu beharko du eskatutako luzapena.

**5. artikulua. Eskualdeko Balorazio Batzordearen osaera.**

Batzordeak kide hauek izango ditu:

- Soraluzeko Udaleko baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzaren kudeaketaz arduratzen den gizarte-langilea.
- Kasua aurkezten duen udalerriko gizarte-langilea.
- Debabarreneko eskualdeko gainerako udalerrietako gizarte-langilea, txandakatze bidez esleitua.

**Artículo 4. Duración.**

El tiempo de estancia en la vivienda dependerá de las circunstancias personales y posibilidades de búsqueda de otros recursos más adecuados y del cumplimiento del Plan de Atención Personalizada (PAP) consensuado entre las partes.

Con carácter general la duración de estancia podrá ser de hasta 7 meses considerados a partir de la fecha de la firma del contrato. En el caso de que el/la profesional referente del caso considere que la estancia de la persona debe prolongarse 3 meses más allá del tiempo de estancia determinado como máximo y la persona atendida esté de acuerdo, deberán remitir a la Comisión de Valoración Comarcal una solicitud expresa antes de la finalización de la estancia, además de un informe social que justifique dicha petición.

El informe hará constar la evolución habida en el tiempo de estancias, y en su caso la justificación para la continuidad de la estancia.

La Comisión de Valoración Comarcal deberá autorizar expresamente la prórroga solicitada

**Artículo 5. Composición de la Comisión de Valoración Comarcal.**

Estará integrada por las siguientes personas;

-. Trabajadora/or Social responsable de la gestión de la vivienda tutelada para las personas en riesgo de exclusión del Ayuntamiento de Soraluze.
-. Trabajadora/or Social del Municipio que presenta el caso
- . Trabajadora/or Social del resto de la comarca Debabarrena asignada mediante rotación

Eskualdeko gainerako udalerrietako gizarte-langileak batzorde horretako kide gisa parte hartuko duen epea bat etorriko da legealdi bakoitzaren hasierarekin eta amaierarekin, eta funtzio hori txandakakoa izango da.

Kasua aurkezten duen udalerria eta batzordean eskualdeko gainerako udalerrien ordezkari gisa diharduena berbera bada, beste udalerri bateko gizarte-langilea izendatuko da berariazko kasu horretarako batzordekide.

El periodo de participación, como miembro de esta comisión por parte de la trabajadora social del resto de la comarca, coincidirá con el inicio y finalización de cada legislatura siendo una función rotatoria.

En caso de que coincida la presentación del caso con el municipio que toma parte en la comisión en representación del resto de la comarca, se procederá a designar como miembro de la comisión para ese caso específico a la trabajadora social de otro de los municipios

**6. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.**

Hartutako pertsonek, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/21004 Dekretuan aintzat hartutako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte.

Betebehar espezifikoak hauek izango dira:

1) Sarrera eskatzeko dokumentua eta araudi honetan harrera-etxebizitza erabiltzeko eta gozatzeko ezarritako arauak betetzeko konpromisoari dagokiona sinatzea.

**Artículo 6. Derechos y Obligaciones de las personas usuarias del servicio.**

Con carácter general, las personas acogidas disfrutarán de los derechos y obligaciones contemplados en el Decreto 64/2004 de 6 de abril, por el que se aprueba la Carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas.

Serán obligaciones específicas;

1) Firmar el documento de solicitud de ingreso y de compromiso de cumplimiento de las normas establecidas en este reglamento para el uso y disfrute de la vivienda de acogida.

2) Zerbitzu horiek erabiltzea eragin duen egoera aldatzeko behar diren kudeaketa administratiboak eta/edo judizialak eta/edo beste edozein motatakoak egitea. Erreferentziako Gizarte Zerbitzuetako Sailaren iritziz komeni bada, Gizarte Zerbitzuetako Sailak egingo duen Arreta Pertsonalizatuko Planean (APP) zehaztu ahal izango dira. Plan hori eranskin gisa gehituko zaio harrera-kontratuari eta haren parte izango da.

2) Efectuar las oportunas gestiones administrativas y/o judiciales y/o de cualquier otro orden necesarias para modificar la situación que ha provocado el uso de estos servicios. En caso de que, a juicio del Departamento de Servicios Sociales de referencia, sea conveniente, estas medidas podrán explicitarse en el Plan de Atención Personalizada (PAP) que se realizará desde el Departamento de Servicios Sociales, que se incluirá como documento anexo al contrato de acogimiento y que formará parte de él.

3) Erreferentziako Gizarte Zerbitzuetako Sailak eskatutako dokumentazioa behar den epean aurkeztea.

3) Aportar la documentación requerida por parte del Departamento de Servicios Sociales de referencia en el plazo debido.

4) Seme-alabak edo ardurapeko beste pertsona batzuk zaintzeaz arduratzea.

4) Responder del cuidado de sus hijos e hijas o de otras personas a su cargo

5) Baliabidea berekin partekatzen duten pertsonen pentsamendu, iritzi, ideologia eta erlijio askatasuna errespetatzea.

5) Respetar la libertad de pensamiento, opinión, ideología y religión de las personas con las que comparte el recurso.

6) Hartutako pertsonen artean gatazkarik edo desadostasunik izanez gero, baliabideaz arduratzen den erakundeak erabakitako neurriak betetzea.

6) Cumplir con las medidas acordadas por la entidad responsable del recurso en caso de conflictos o desacuerdos entre las personas acogidas.

7) Elkarrenganako errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako jarrera izatea, etxebizitzan bizi diren pertsonen eta auzokideen arteko bizikidetza errazteko. Halaber, auzokideen erkidegoan indarrean dauden arauak ere bete beharko dituzte.

7) Mostrar una conducta basada en el respeto mutuo, la tolerancia y la colaboración con el propósito de facilitar la convivencia entre las personas residentes y con la vecindad, obligándose también a cumplir las normas que rijan la comunidad de vecinos.

8) Etxebizitzan erabiltzaileen esku dauden objektuak, ekipamenduak eta tresnak egoki eta errespetuz erabiltzea.

8) Hacer un uso adecuado y respetuoso de los objetos, equipamiento y utensilios a su disposición en la vivienda

9) Etxebizitza eta objektu pertsonalak garbitzeaz arduratzea. Etxebizitza familia-unitate batek baino gehiagok partekatu behar badute, guztiek erabiltzen dituzten gelak (sukaldea, egongela, bainugela, eskailera, ezkaratza) antolatzeko eta garbitzeko akordioak erdietsi beharko dituzte.

9) Responsabilizarse de la limpieza de la casa y objetos personales. En caso de que la vivienda deba ser compartida por diferentes unidades familiares, se deberán llegar a acuerdos de organización y limpieza de las dependencias de uso común (cocina, sala, baño, escalera, portal).

10) Baliabidearen geletan nahita edo arduragabekeria larriaren ondorioz eragindako kalteen erantzule izatea.

10) Responder de los daños causados intencionadamente o por negligencia grave, en las dependencias del recurso.

11) Debabarreneko eskualdeko udalek baimendu ez dituzten pertsonei ez uztea etxebizitza okupatzen/erabiltzen, haiekin duen ahaidetasuna edo harremana dena dela ere.

11) No permitir la ocupación/uso de la vivienda a personas no autorizadas por los Ayuntamientos de la Comarca Debabarrena, independientemente del tipo de parentesco o relación que tenga con ellas.

12) Zerbitzuaren giltzen kopiarik ez egitea eta giltzak beste pertsonaren bati ez uztea. Egonaldia amaitzean etxebizitzaren arduradunari entregatu beharko dizkio giltzak.

12) No realizar copia de las llaves del servicio ni dejarlas a otra persona. Al finalizar la estancia deberá entregar las llaves a la persona responsable del piso

13) Etxebizitzan animaliarik ez edukitzea, salbu eta itsu-txakurrei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legean aintzat hartutako terminoetan edo baliabideaz arduratzen den erakundeak baimendutako salbuespenezko kasuetan.

13) No tener animales en la vivienda, salvo en los términos contemplados en la Ley 17/1997, de 21 de noviembre, de perros-guía, o en otros casos excepcionalmente autorizados por la entidad de la que depende el recurso.

14) Etxebizitzan irabazizko jarduerarik ez garatzea.

14) No desarrollar en el piso actividad lucrativa alguna.

15) Higienearen kontrako materialik ez biltegiratzea. Berariaz debekatuta dago armak edukitzea.

15) No almacenar materiales antihigiénicos y/o peligrosos, prohibiéndose expresamente la tenencia de armas.

16) Legezko (alkohola, tabakoa) edo legez kontrako substantziarik ez kontsumitzea.

16) No realizar ningún tipo de consumo de sustancia sea legal (alcohol, tabaco) o ilegal.

17) Soraluzeko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailari edozein kalteren berri ematea edo zerbitzuan konponketak edo hobekuntzak egiteko premia jakinaraztea. Berariaz debekatuta dago ildo horretan edozein esku-hartzerik egitea sailak aldez aurretik baimena ematen ez badu. Jaiegunetan edo udal-zerbitzuen funtzionamendu-ordutegitik kanpo gertatzen diren larrialdietan bakarrik izango du onuradunak matxura bat bere kabuz konpontzeko aukera. Kasu horretan, ahalik eta lasterren emango du konponketaren berri, eta nolanahi ere, konponketa egin ondorengo 72 orduak igaro baino lehen.

17) Comunicar al Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Soraluze cualquier desperfecto o necesidad de arreglo o mejora en el servicio, prohibiéndose expresamente cualquier intervención en este sentido sin su autorización previa. Únicamente se permitirá el arreglo de una avería por iniciativa de la persona beneficiaria en situaciones urgentes producidas en festivos o fuera del horario de funcionamiento de los Servicios Municipales, en cuyo caso se pondrá en conocimiento de estos en cuanto sea posible y, en cualquier caso, antes de las 72 horas siguientes.

18) Etxebizitzan sartzean bertan dauden altzari eta etxeko horniduren inbentarioa sinatzea. Egonaldia amaitzean inbentarioa egiaztatuko da, baita etxebizitza eta altzariak egoera onean daudela begiratu ere. Kalteren bat badago edo inbentariatutako ondasunen bat falta bada, erabiltzaileak ordaindu beharko ditu hura konpontzeko edo erosteko gastuak. Gastu horiek ordaintzeko epea eta baldintzak inbentarioaren dokumentuan bertan jasoko dira.

18) Firmar un inventario de los enseres y ajuar de la vivienda al entrar en el Piso. Al finalizar la estancia se comprobará el inventario, así como el buen estado del Piso y el mobiliario. En caso de desperfecto o de falta de algún bien inventariado la persona usuaria está obligada a cubrir los gastos de su reparación o compra. El plazo y las condiciones en que deberán abonarse estos gastos figurarán en el mismo documento del inventario.

19) Nahitaezkoa izango da gaua etxebizitzan ematea. Etxebizitzatik joan behar izanez gero, erreferentziako Gizarte Zerbitzuetako Sailari jakinarazi beharko zaio, eta horrek izango du egindako eskabidea ebazteko ahalmena.

19) La pernocta será obligatoria. En caso de necesidad de ausentarse, se deberá comunicar al Departamento de Servicios Sociales de referencia quien tendrá la facultad de resolver la solicitud realizada.

20) Erreferentziako gizarte-zerbitzuek prestatutako banakako plana edo familiarena betetzea.

20) Cumplir el plan individual o familiar de atención elaborado desde los servicios sociales de referencia.

21) Gizarte-zerbitzuetako langileei edo horiek baimendutako beste pertsona batzuei etxebizitzan sartzen uztea.

21) Permitir el acceso al personal de servicios sociales u otras personas autorizadas por estos

22) Erreferentziako Gizarte Zerbitzuetako Sailak ematen dituen argibide guztiak betetzea.

23) Gizarte- eta hezkuntza-taldearen esku-hartzea onartzea eta taldeak proposatutako argibideetan laguntzea.

**7. artikulua. Harrera azkentzea.**

Dagokion espedientearen instrukzioa egin ondoren, Eskualdeko Balorazio Batzordearen proposamenari jarraikiz, zerbitzuaren prestazioa aurreikusitako eguna baino lehen azkentzeko erabakia hartu ahal izango da organo eskudunaren ebazpen bidez, interesdunak esan beharrekoa entzun ondoren.

Ebazpen hori onuradunari jakinaraziko zaio.

Hauek dira zerbitzua AZKENTZEKO arrazoiak:

— Harrerarako aurreikusitako denbora amaitzea.

— Erabiltzaileak zerbitzuari uko egitea.

— Heriotza.

— Zerbitzuaren prestazioa sortu zuen beharraren arrazoia desagertzea.

— Zerbitzua emateko kontuan izan diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.

— Zerbitzua eskuratzeko eskatutako betekizunen bat galtzea.

— Zerbitzuaren jarraipena egiteko eska daitekeen dokumentazioa ez aurkeztea.

22) Cumplir con todas aquella indicaciones que se realicen desde el Departamento de servicios sociales de referencia

23) Aceptar la intervención del equipo socioeducativo y colaborar con las indicaciones propuestas por el equipo.

**Artículo 7. Extinción del acogimiento.**

Tras la instrucción del expediente oportuno, y a propuesta de la Comisión de Valoración Comarcal, se podrá determinar la extinción de la prestación del servicio antes de la fecha prevista para ello mediante resolución del órgano competente, previa audiencia de la persona interesada

Dicha resolución será notificada a la persona beneficiaria.

El servicio se EXTINGUIRÁ por los siguientes motivos:

— Finalización del tiempo previsto para la acogida.

—Renuncia de la persona usuaria

—Fallecimiento.

—Desaparición de la causa de necesidad que generó la prestación del servicio.

—Ocultamiento o falsedad en los datos que hayan sido tenidos en cuenta para la concesión del servicio.

—Pérdida de alguno de los requisitos exigidos para acceder al servicio.

—No aportar la documentación que pudiera ser requerida para el seguimiento del servicio.

— Beste erabiltzaile batzuei eta langile teknikoei eraso fisikoak edo psikologikoak egitea.

— Araudi honetan edo, hala badagokio, sinatzen den dokumentuan aurreikusitako erabiltzaileen beste betebehar batzuk behin eta berriz ez betetzea.

— Etxebizitzatik justifikaziorik gabe joatea.

— Gizarte-zerbitzuetako langileei edo horiek baimendutako beste pertsona batzuei etxebizitzan sartzen ez uztea.

— Barne-funtzionamenduko arauak ez betetzea.

— Arreta Pertsonalizatuko Planaren (APP) esparruan egin beharreko ekintzak eta etxebizitza lagatzeko kontratua ez betetzea.

— Araudi erregulatzailean ezarritako beste edozein betebehar ez betetzea.

— Gizarte- eta hezkuntza-gidalerroak ez betetzea.

**8. artikulua. Utzarazpen administratiboa.**

Araudi honetan aurreikusitako arrazoiren bat tarteko, edo emandako epea amaitu izanaren ondorioz, etxebizitza utzi behar duten pertsonek hori egiteari uko egiten badiote, utzarazpen administratiboaren bitartez behartu ahal izango dituzte, Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 120. artikuluan eta hurrengoetan edo ordezko araudian aurreikusitako tramiteei jarraikiz.

**9. artikulua. Erregimen ekonomikoa.**

Zerbitzua ez dago baterako ordainketari loturik.

—Por agresión física o psicológica a otros usuarios o usuarias y al personal técnico.

—Por incumplimiento reiterado de otras obligaciones de las personas usuarias previstos en este reglamento, o en el documento que se firme en su caso.

—Por ausentarse sin justificación.

—Por no permitir el acceso al personal de Servicios Sociales u otras personas autorizadas por estos.

—Por incumplimiento de las normas de funcionamiento interno.

—Por incumplimiento de las acciones a realizar en el marco del Plan de Atención Personalizada (PAP) y del contrato de cesión de la vivienda

—Por cualquier otro incumplimiento de las obligaciones establecidas en el Reglamento Regulador.

—Por incumplimiento de las directrices socioeducativas

**Artículo 8. Desahucio Administrativo.**

En caso de que, por alguno de los motivos contemplados en este reglamento o por finalización del plazo concedido, las personas que deban abandonar la vivienda se negaran a hacerlo, podrán ser obligadas mediante desahucio administrativo siguiendo los trámites previstos en los artículos 120 y siguientes del Reglamento de Bienes de las Entidades locales o normativa que le sustituya.

**Artículo 9. Régimen económico.**

Este servicio no está sujeto a copago.

**10. artikulua. Zerbitzua erabiltzearen ondorio diren gastuak.**

Debabarreneko eskualdeko udalen kontura izango dira zerbitzuaren erabiltzaileei emango zaien gizarte- eta hezkuntza-sostenguko zerbitzuaren ondorio diren gastuak, erkidego-gastuak, elektrizitatea, gasa, ura, higiezina eduki edo erabiltzearekin erlazionatutako edozein motatako tasak edo zergak, zabor-bilketaren tasa barne, eta konponketek eragindako gastuak, hartutako pertsonei egotz dakizkiekeen arrazoien ondorioz sortutakoak direnean izan ezik.

**Artículo 10. Gastos derivados del uso del servicio.**

Serán a cargo de los Ayuntamiento de la comarca Debabarrena, los gastos derivados del servicio de apoyo socioeducativo que se prestará a las personas usuarias del servicio, comunidad, electricidad, gas, agua, las tasas o impuestos de cualquier tipo relacionados con la tenencia o uso del inmueble, incluida la tasa de recogida de basuras, así como los gastos generados por arreglos, excepto que estos estén motivados por razones imputables a las personas acogidas.